

Aikok ikasturte berria aurkezteko doako ekimenak eskainiko ditu gaurtik aurrera Bilbon

EC elcorreo.com/zurekin/aikok-202223-ikasturtea-20220919131211-nt.html

UNAI SARRIUGARTE

September 19, 2022



Dantza ibiltaria eta dantzapoteoa eguerdiko hamabietan abiatuko dira. / AIKOTALDEA.EUS

Talde bizkaitarrak dantzaz disfrutatu eta hauxe demokratizatzekeo espazio berriak sortzearen aldeko apustu tinkoa egiten jarraituko duela nabarmendu du

UNAI SARRIUGARTE Asteartea, 20 iraila 2022, 09:08

Aiko dantza taldeak ikasturte berriaren aurkezpena egiten dabil egunotan. Izan ere, talde bizkaitarrak dantzaz disfrutatu eta hauxe demokratizatzekeo espazio berriak sortzearen aldeko apustu tinkoa egiten jarraituko duela nabarmendu du. Bere arduradunen esanetan, «euskaldunentzat dantza tradizionala garaikidea da, gaur egungoa eta etengabe berritzen ari dena. Hori dela medio, Aikok 2022-23 ikasturtea aurkeztekeo dantza tradizionalakeo doako hainbat ekimen herrikoi antolatu ditu Bilboko eta Donostiako kaleetan.

Bilboko Doña Kasilda parkean hiru egunetan jarraian emango dituzte aditzera dantza tailerrok, irailaren 20, 21 eta 22an, arratsaldekeo zazpitan abiatuta, alegia. Gran Vía eta Arte Eder Museoaren tartean dagoen esparruan izango dira hauexek. Saiook ordu bete

inguruko iraupena izango dute.

Irailaren 20an, asteartean, 19.00etatik 20.00etara baltzeoa erakutsiko dute. Era berean, irailaren 21ean, asteazkenean, ordu eta leku berberean dantza sueltoan ariko dira. Irailaren 22an, ostegunean, berriz, dantza jauziak izango dira bertaratzen direnen gozagarri.

Bestalde, irailaren 24ean, larunbatean, Bizkaiko hiriburuan ere, Foru Aldundiaren aldamenetan izango dira dantza erakustaldiak eskaintzen, Diputazio Kalea eta Arbieta Kaleetan barrena. Dantza ibiltaria eta dantzapoteoa eguerdiko hamabietan abiatuko dira.

Irailaren 25ean, igandean, aldiz, Donostiko alde zaharrea elkarrekin dantzan eginez gozatu eta parrandatxo egitea otu zaio taldeari. Bertan ere dantzapoteoa eguerdiko hamabietan egingo da, Sarriegi plazan dagoen Danborrariaren monumentu inguruan hasi, eta San Juan Kalea, Fermin Calbeton eta Konstituzio plaza zeharkatuko dutelarik.

Temas

Euskera